

KOSTUEN EGITURA

Negozio-eredu bat aurrera ateratzeak kostuak dakartzala ukaezina da, horregatik enpresa bat sortzerako garaian ezinbestekoa da kostuen egiturari erreparatzea. Azken finean, gure enpresaren xedea gizartean haien premiak bakarrik asetzeko gai ez direnei laguntzea eta haien ongizatea bilatzen saiatzea bada ere, enpresaren iraunkortasuna eta funtzionamendua bermatzeko mozkinak maximizatzea egin beharreko ahalegina da. Horretarako, ahalik eta kostu txikienak dituzten baliabideak eskuratzen eta tokian tokiko merkatua azterturik erabaki komenigarrienak harturik.

Hala eta guztiz ere, *Pausoz, pauso!* enpresa balioan oinarritutako negozio-eredua izatea nahi dugu, kalitatezko eta benetan erabilgarria den zerbitzua eskainiz. Horrenbestez, ahalik eta irabazi gehien lortzen saiatuko gara, betiere gure enpresaren balioekin bat egiten badu, hau da, eskaintzen duguna kalitatezkoa bada. Badakigulako gure enpresak pertsonekin jarduten duela, eta hauen ongizatea lehenestea oinarrizkoa iruditzen zaigu. Hala ere, esan bezala, aipaturikoa betetzen dugun bitartean, kostuak minimizatzen ahaleginduko gara, batetik gure enpresaren jarraikortasuna ziurtatzeko eta ahal den heinean enpresa handitzeko, segmentu gehiagori gure enpresara etortzeko aukera emanaz. Bestetik lortutako dirua enpresan berrinbertitzeko eta horrela gure negozioaren kalitatea hobetzeko.

Hainbat kostu mota bereiz ditzakegu, kostu finkoak eta aldagarriak esaterako. Lehenengoak, ekoiztutako zerbitzu edo produktu kopuruaren arabera aldatzen ez diren ongiei egiten die erreferentzia. Hortaz, gure enpresaren barruan soldatak izango lirateke ordaindu beharreko kostu finkoa. Askotan iruditu dakiguke soldata baxuak ordaintzeak enpresaren onura dakarrela, kostuak baxuagoak diren horretan irabaziak handiagoak baitira. Gure ustez, epe luzera begiratu, onuragarria da enpresako langileen soldatak duinak izatea, eta enpresak aurrera jarraitzeko dirua izanik, ahalik eta soldata altuenak ordaintzea. Horrela, enpresak haien lana errokonozitu duela sentituko dute, beraz gustura egongo dira eta ondorioz haien eraginkortasuna handiagoa izango da. Bide batez kontsumitzaileak erosoago sentituko dira jasotako tratua hobea izango delako, eta epe luzean enpresaren irabaziak eta arrakasta handiagoa izango dira. Jakin badakigu, lokal batean lan egingo dugula sarritan,

enpresako langileon komunikazioa errazteko. Hala ere, erabiliko dugun lokala dagoeneko langile batena da eta erabiltzen ez duela aprobetxatuz guk eraberritu eta martxan jarriko dugu, guretzat kosturik suposatu gabe.

Kostu aldagarriak aldiz, ekoiztutako produktu eta zerbitzuaren kopuruaren arabera aldatzen diren kostuak dira, hau da, ekoizpen mailarekin proportzionalak diren kostuak. Gure enpresan horren lekuko izango dira besteak beste elektrizitatea, publizitatea egiteko eta bezeroak erakartzeko beharrezkoa den materiala, webgunearen mantenua egiteko ordaindu beharrezkoa, gure bezeroek gure enpresaren bezero direla ageri den ziurtagiria fisikoki txartel batean jasotzeko beharrezkoa den materiala, interneterako zerbitzua, eta beste hainbat kostu aldakor. Esan bezala, hauetan ere oreka jasangarri bat bilatuko dugu kostuen eta kalitatearen artean.

Honekin guztiarekin, ondoriozta dezakegu, kostu aldakor eta finakoak izango baditugu ere, enpresa sortzeko egin behar dugun esfortzu ekonomikoa ez dela oso handia. Hala ere, enpresa sortzean etengabeko oreka bilatu beharko dugu etekinak maximizatzeko lanean eta aldi berean kalitatearen artean. Espero dugu pixkanaka pixkanaka kostuak izaten jarraituko dugun arren, diru sarrerak handitzea eta horri esker eskainiko dugun zerbitzua hobetzearekin batera, biztanle gehiagori laguntzeko aukera izatea.